



JANTOKIKO HELBURUAK ETA ARAUAK



" Bilboko Ikastola "



AURKIBIDEA

1. JANTOKIKO ZERBITZUA. HELBURUAK, INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUAK.....	3
1.1 HELBURUAK.....	3
1.2 INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUAK.....	3
a. Jantokia.....	3
b. Denbora libreko tartean.....	4
c. Jantokiko eguneko alta, baja eta menu bereziak	4
d. Jantokiko Prezioak.....	4
e. Aldaketak egiteko eskaera kurtsoan zehar	4
f. Jantokiko ordainagiriak	5
g. Egutegi eta ordutegiak	5
h. Faltak eta zigorrak	5
i. Alergikoak eta intoleranteak	6

1. JANTOKIKO ZERBITZUA. HELBURUAK, INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUAK

1.1 HELBURUAK

Kirikiño ikastolako jantokiak lortu nahi dituen helburuak hurrengoak dira:

1. Ohitura osasungarrietan hezte menu orekatu baten laguntzaz.
2. Ikasleriaren egokitzapena bultzatzea menu anitzen bitartez. Jantokian, jarrera ona, tolerantzia eta bizikidetzan oinarritutako hezkuntza lantzea.
3. Familia askok behar duten zerbitzu osagarri bat eskaintzea, hauen, lanaldia eta betebeharrak errespetatuz.
4. Familiak transmititzen dituzten baloreak osotzea eta bermatzea, hala nola, ohitura sozialak, higienikoak, gizalege arauak eta jantokiko tresnen erabilera egokia lantzea.
5. Menu orekatu bat programatzea eta familiak denboraz informatzea, etxeko menu osagarri bat sortu ahal izateko.
6. Erantzun egokia ematea menu berezien (alergiak, zeliakoak...) beharra duten umeei.
7. Erantzukizuna eta kooperaziorako izaera bultzatzeko giroa sortzea.

1.2 INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUAK

a. Jantokia

1. Ikasleak denak batera joango dira jantokira, lasai eta haien txanda itxaroten.
2. Ume guztiek jango dute zer edo zer. Gutxienez, lehenengo eta bigarren platerren erdia.
3. Postrea, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat ez da derrigorrezkoa, Haur eta Lehen hezkuntzakoentzat bai.
4. Plater bat errepikatzeko bi baldintza bete dira, alde batetik sukaldearen baliabideen arabera posible izatea eta bestetik, aurreko platerren erdia janda egon beharko dala.
5. Fruta errepikatu daiteke.
6. Ez da batuko, ez platerrik ezta bandejarik ere, ezarritako minimoa janda egon arte (DBHn izan ezik).
7. Ume bakoitza egunero eseriko da leku berdinean. Noiz behinka jaten geratzen direnak haien ikasturtekoekin batera eseriko dira.
8. Jaten duten bitartean, ez da zaratarik sortuko, momentu lasaia izan dadin.
9. Ezin da jantokitik janaria atera ezta kanpotik eraman ere.
10. Ikasle guztiek eserita jango dute eta ezin izango da inor altxatu jaten bukatu arte (jateko denbora gehiago behar duten umeei, eta segun zein txandatan jaten duten, lekuz aldatu beharko ditugu).
11. Jaten duten bitartean mahaiko arduraduna altxatuko da bakarrik.
12. Ikasle bakoitza bere jateko tresnen, mahaien eta eserlekuen erabilpen egokiaren arduraduna izango da.
13. Mahaien arduradunak, hurrengo betebeharrak izango dituzte:
 - Mahaiko kideek behar dutenean pitxerrak urez beteko dituzte.

- Mahai gainean dagoen guztia batu edo bere mahaikide bakoitzak bere gauzak jasotzen dituela bermatu beharko du.
- Behin jateko txanda bukatu dela, dena garbi uzten dutela ikuskatu beharko du.

14. Mugikorra erabiltzea debekatuta dago

b. Denbora libreko tartean

1. Patiotik jantokira, jantokitik patiora edota eskolaz kanpoko ekintzetara doazela modu lasai eta ordenatuan egingo dute, zarata handirik sortu gabe eta begiraleen zaintzapean.
2. Ezin izango da patio orduan, ikastola barrutik ibili, komunetara, liburutegira edo eskolaz kanpoko ekintza batera joan behar ez badira. Beste arrazoi batengatik bada begiraleen edo irakasleen onespena izan beharko dute aurretik.
3. Ezin izango da inolaz ere ez ikastolatik irten, guraso edo senide bat espreski umearen bila etortzen ez bada, eta idazkaritzan abisua eman ostean

c. Jantokiko eguneko alta, baja eta menu bereziak

1. Ikasleen eguneko alta/baja edo osasun arrazoiengatik menu aldaketan abisuak emateko modua hau izango da:

Goizeko 9:00etatik 10:15era.

Jantokiko telefonoa: 94 459 82 01

2. Jantokiko arduradunekin hitz egiteko ordurik aproposena **arratsaldeko 15:00etatik 15:30etara da.**

d. Jantokiko Prezioak

1. Ikasurte bakoitzeko prezioak kurtso hasieran publikatzen dira gidan.
2. Eguneko bajaren dirua (janariaren kostua) bueltatuko da, beti ere, goian azaldutako moduan gurasoen abisua egon bada.

e. Aldaketak egiteko eskaera kurtsoan zehar

1. Kurtsoan zehar jantokian izena-emateko edo izen-ematea baliogabetzeko, hilea bukatu baino lehen abisatu beharko da.
2. Zerbitzu honetan aldaketa bakar bat baimenduko da hiru hileko bakoitzeko. Zerbitzuan aldaketa gehiago eskatuz gero, 5 € ordaindu beharko dira aldaketa egingo den aldi bakoitzeko.
3. Ikasle baten menua, denbora luze batez, aldatu behar den kasuan, aurretiaz abisatu beharko da, medikuaren ziurtagiria aurkeztuz.

4. 3,4,5,6 eta 7 urteko umeei buruzko informazioa, zelan jan duten, siesta bota duten... ALEXIA aplikazioaren bidez, kontsultatu dezakezue.
5. Gomendagarria da umeek hamaiketakorako gozokiak eta azukredun elikagaiak ez ekartzea, ohitura osasungarriak sortzeko.

f. Jantokiko ordainagiriak

1. Ordainketak banku bidez egingo dira ikastolako kuotarekin batera. Jantokia erabili eta hurrengo hilabeteko ordainagiritan kobratuko da.

HH 2 eta HH IRAILAREN 10 – 18rar

3: EKAINAREN 10 – 20ra

g. Egutegi eta ordutegiak

1. Urtero, egun berezien ordutegia gidan argitaratuko da, klaseak goizez bakarrik dauden egunetan eta horrelakoetan.
2. Ikasleak etxera bakarrik joateko baimena (bazkalorduan edo autobus geltokitik)
 - Guraso edo tutoreak zerbitzuko arduradunei (jantokia edo autobusak) e-maila bidali behar diote ikaslearen datuekin eta baimena emanaz.
 - **GARRANTZITSUA: Baimena ikasturte osorako da.**

h. Faltak eta zigorrak

1. Ikasleren bat falta bat egiten duen momentuan ondorengo irizpideak hartuko dira kontutan zigorra ezartzeko, ikaslearen adina, falta mota eta larritasun maila. Faltak, arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.
2. Horretarako, ikasleen eskubideen eta betebeharren dekretua hartuko da erreferentziatzat:
 - i. Falta arinak ondorengo moduan kudeatuko dira:
 1. monitorearen edo jantokiaren arduraduna abisua jasota.
 2. beti ere larria ez danean, zapuztutako tresnaren berritzapenarekin.
 3. komunitatearen onerako betebehar bat burutzea.
 - ii. Falta larriak ondorengo moduan kudeatuko dira:
 1. jantokiko zerbitzuen erabileraren debekua egun batzuk eta aste oso baten arteko denboraldian.
 - iii. Falta “oso larriak” ondorengo moduan kudeatuko dira:
 1. jantokiko zerbitzua erabiltzearen debekua aste batetik eta kurtso osoaren arteko denboraldian.
 - iv. Falten pilaketa, hauen larritasun maila handituko du.
 - v. Dena delakoa falta mota, familiei abisatuko zaie, jakinean egon daitezen eta guztion artean konponbidea bideratu ahal izateko.

i. Alergikoak eta intoleranteak

1. Haien taldearekin batera leku finkoa dute.
2. Mahaien izkinetan esertzen dira beste kideen elikagaiekin ahalik eta kontaktu gutxien izateko, eta haien datuak (izena, ikasturtea, irakaslea eta alergia edo intolerantzia) dituen kartel bat dute parean.
3. Haien janaria aparte egiten da eta zuzenean sukaldean zerbitzatzen zaie.
4. Begirale batek jarraipena egiten die (1.platerra, 2. platerra, postrea) eta momentu oro behar dutena eskaintzen die.
5. Sukaldean alergiko eta intolerante guztien informeak ditugu, datu guztiekin.
6. Gaur egun Gascak hileko menua ematen digu.
7. Alergia larriak dituzten umeen txertoak ditugu (batzuk familiek emandakoak) jantokitik hurbilen dauden botikinetan, beharrezko direnean eskura izateko.